

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

A.O.I.A. taldea

IDEIA: Energia generatzen duen kirol-makina

Gure proiektuak funtzionatzeko elementu garrantzitsuenak hauek dira. Lehenik, baliabide fisikoak behar ditugu, hau da, produkzioarako lokal bat, ordenagailua web-orria eramateko eta baita telefonoa ere bezeroekin harremanetan jartzeko.

Horrez gain, baliabide intelektualak eta giza baliabideak erabili behar ditugu. Bakoitzak dituen abileziak hartu behar dira kontuan atal honetan. Lehenik eta behin, Aizpeak sormen handia duenez, sare sozialez eta web-guneaz arduratuko da bezeroak erakartzeko, originaltasunaz baliatuko baita. Bestetik, Oihane bezeroekin harremanetan egongo da, pertsonekin ondo moldatzen delako; eta baita hornitzaileekin harremanetan, beharrezko piezak eskuratzeko.

Ondoren, Izaro kalkuluetan oso ona denez, berak eramango ditu enpresaren diru-kontuak. Etekinak eta gastuak kontrolatzen etab. Izarok ere kirola asko gustuko duenez, makinaren funtzionamenduz arduratuko da eta bezeroei funtzionamendua azaltzeaz. Azkenik, Aroa izango da denetik lanean eta kontrolatzen ariko dena, oso ona baita administrazio kontuan eta baita taldea moderatzen.

Bukatzeko, enpresa sortzeko dirua behar da, eta finantza-baliabideez baliatu behar dugu enpresa sortzeko, gure aurrezkiez, hain zuzen ere.